




ZERUKO ARGIA

ILLEROKO ALDIZKINGI EDERGARRIDUNA

AITA KAPUTXINOAK ZUZENDUA

IV Urtea

1922k'o Uztaila

43 Zenbakia

OTOITZA

Opertet semper orare et non deficere.

(Luc. 18-8.)

Bear da beti otoitz egin ta ez aspertu.

Kristau ikasbidearen 2'n zatia.



ER da otoitz egitea? galde egiten du Astete A.'k, eta erantzuten du: *E.* Jaungoikoagana biotza jasotzea ta uzkuñ ta uste onaz Ari laguntzea eskatzea, da otoitz egitea. «¿Otoitza zer da? galdetzen du X'gfen. Pio Aita Santuak eta erantzuten du: otoitza da buru edo gogoa Jaungoikoagana jasotzea, berari agur egin, eskefak eman eta beaf guzia eskatzeko.

Azkena esanak, lenengoak baño obeki darakusgu otoitza zer dan. Otoitzik egitekotan, gure buru, gogo eta biotza bear ditugu Jaungoikoagana jaso. «Igo bedi nere otoitza zure afean, inzentsu-ekoa bezala» zion Dabid Igarle Santuak.

Atsegin zitzaizkion gure Aita Prantzisko deunari luñ-txoriak, txitxifika ari diran bitartean gora ta gora aidean altxatuz joaten diralako; ta bereai esaten zien: berealaxe beaf zutela beren biotza ta gogoa zerurontz, Jaungoikoagana jaso, beren ezpañaz otoitzak esaten zituen artean.

Krisostomo Deunak dio *otoitza* dala Jaungoikoarekin itz egitea edo mintzatzea. Norpaitekin itz egitekotan orde beaf gaizkio bera gana itzuli.

Baño Buenabentura santuak dio iru agurtzale edo otoitz egile mota berei ditezkelak; batzuek ezpañez bakañik; beste batzuek biotzez bakañik eta beste batzuek biotzez eta ezpañez egiten dutenak; aurenakoak itxuratiak; bigañenak kartsuak; eta irugarenak egiazkoak dirala. (Super Psalm. 16.)

Otoitza egin diteke geroztik itzik esan gabe, ezpañik erabili gabe, agorik zabaldu gabe; baño ez inoiz ere gure gogo eta biotza Jaungoikoagana jaso bage.

G.—¿Zenbat eratakoea da otoitza.

E.—Otoitza bi eratakoea da: buruzkoa ta itzezkoa.

G.—¿Zer da buruzko otoitza?

E.—*Buruzko otoitza adimen utsez edo barengo pensamentu ta gogoz egiten dugun ura da, ta gogozko otoitza deritzaio.*

Gure kidekoei gure gogoa erakusteko, itzez, begiratzek edo keñuz baliatzen gera. Jaungoikoari gure gogoak erakutsi, adirazi ta beaf duguna eskatzeko ez dugu ofelakoen beafik, gure otoitza buruzkoa bakarik danean. Biotzetik biotzera itzegin dezakiokegu Jaunari itzik atera gabe.

Onela dio Efegeen 1.^o liburu santuak, Samuel'en amaz: itz egiten zuala bere biotzean Jaungoikoarekin, baño ez zala txintik entzuten.» (I-13) Jesus'ek bere azken aparti afean bere begiak jaso zituan zerurontz eta burua beratu zuan bere Aita Zerutafari eskefak emanez eta bitartean bere biotzean otoitz egiten zuan. Gogoz, buruz edo biotzez Jauna agurtu edo adora dezakegu, eskefak eman dezakiokegu, baita laguntza ta ondasunak eskatu ere, inor oartzen ez dala, ezpañik zabaldu gabe. Auxe da, ba, buruzko otoitza.

G.—¿Zer da aozko edo itzezko otoitza?

E.—*Aozko otoitza itzez egiten dan ura da, baño itzai adimenaren indarez biotzaren gogo beroak lagunduaz: otoitz oni eskaria deritzaio.*

Aoz, Jaungoikoari esaten dioguna, gure burutan erabili ta biotzez nai izan beaf degu, otoitz ondasunduna izatekotan. Batzuek gorputzeko otsaz deitzen diote Jaungoikoari, dio Agustin deunak, baño ez gogozko otsaz. Oietaz zion Jesus'ek: efi onek ezpañez gorapidea ematen dit, baño bere biotza uruti dago nigandik. Zerofek zer diozun ez dakizula ari ba-zera, nola nai duzu Jaunak entzutea? Jaungoikoari gogoz aguf egin beaf zaio. (Joan: III-24.)

Otoitza izan diteke bakarkakoea ta lagunartekoea.

Bakarkakoea da batek bakarik bere edo besteren onerako egiten duana. Ontaz esan zuan Jesus'ek: otoitz egiten duzunean sartu zaitez zure gelan (kuartoan), eta izkutuan entzuten duan Jaungoikoari, otoitz egiozu, ataria itxirik. (Matt. VI-5.)


Lagunartekoea da bi edo geiago lagunek batean egiten dutena. Au gogo garbiz egiña izan ezkeroz, au da, ez ba-da egiten ikusia izateagatik edo ezerezagabeko gauza batengatik, lenengoa baño ohea, ta Jaunaren afean indaf aundiagokoea da. Befiz esaten dizuet, zion Jesus'ek,—zuetako biak elkar artzen ba-dute, egingo zaiote nere, zeruan dagoan aitaz. Bi edo iru nere izenean bildurik daudenean an nago aien erdian. (Matt. XVIII-19-20.)

Kristau asko bildurik, otoitza batean egiten dutenean soldadutza azkar, Guzalduna entzutera beartzen dutena bezela dira. (Tertuliano'k.)

Otoitza izan diteke berezkoa edo elizlegezkoa.

Berezkoa deitzen zaio batek bere gogoz, gogoak ematen dion garaietan eta edozein kristauak egiten duana.

Elizlegezkoa da Elizaren otoitza; elizgizonak, Elizaren izenean eta



eri siñismendunaren onerako egiten dutena. Elizlegezko otoitz oni afeta aundia zioten Dabid Igarle santuak Lege Zafean, Milan'go Gotzai edo Obispo izan zan Ambrosio deunak eta Gregorio aundi Aita Santu zanak; eta Elizan kantuz edo abestuz Elizotoitza jartzeko lan asko egin zuten.

Elizotoitzak egunero egitera beartuak gaude Ordenatuak Praile ta Monja eskeñitz bikañena emanak, korura beartuak izan ezkeroz.

Otoitz egitea da gizonaren goragafi ta altxagafirik aundiena, bere Egi-
learekin itz egin eta jardun dezakelako kezka gabe.

Intza'r Damaso An. O. M. Cap.

Apaiza Aingeru

AINGERU esan, eta ordezkoa, bialia, mandataria esan, gauza bera da. Apaiza ere, Aingeru da. Efege dala ta, efege guzien gañekoa dan bezala, Aingeru dan aldetik Aingeru guzien gañekoa da. Esan dutena Bernardo doitsuana da: Aingeruen, Aingeru-nagusien, Jarroyen eta Menderatzaleen gañekoak zerate zuek.

Elizak dionez, Aingeruak Jaun Aundiaren aurfear bildurtzen dira: Bera ikusteaz Aingeruak ikaratzen dira. Zeruko Aldunagatik ori bera esaten du: *Tremunt Potestates*. Kerubiñagatik Jaungoikoaren oinpekoak dirala Profetak esan du: *Qui sedes super Cherubin*: Exerita zaude kerubiñen gañean. Eta Serafiñagatik, zutik zeudeja esan du Isaiak: *Seraphim stabant*. Apaizagatik bakarik, eserita daudela esaten du: ala zeuden Apokalipsi'ko apaiz jantziriko ogei ta lau zafak.

Gizonai eman zaie Aingeruai ukatu zaiena. Apaiz Jaunak eskeintza ikaragafia egiten duanean, Aingeruak afen Aldamenean, moñoiak bezala laguntzen dagoz, Aingeruen bati noiz esan dio: Zuk lufear lotzen dezuna nik zeruan lotuko det, eta lufear zuk askatzen dezuna, zeruan askaturik geldituko da?

Aingeru zaitzaleen eginkizuna, animak gaitz guzietatik aldentzea da; baña anima oek pekatu lafira erortzen badira, aingeruak apaizarengana eramane beaf izaten ditue, berak ezin barkatu baidiote.. Zeruko Gudarien Buru Mikel Doitsu ber-berak, azkenekotan dagon kristau baten ondora joan eta deabruak andik bota ditzazke; baña anima oen kateak ufatugabe egongo dira, apaizen bat barkatzera joaten ezpazaio. Ala esan du Ligorio'tar Alfonso Deunak.

Asis'tar Prantzisko Doatsuak esan oi zuan: Nik bide batean topatuko banituzke apaiz gajo bat eta zeruko aingeruen, edo Apaiz eztan Santuen bat

(Juan Bautista Deuna bada ere), lenbiziko apaiz aŭfean belaunikatuko nintzake, eskuan musu emango nioke eta Aingeruari edo Santuari baño aguf beroagoa egingo nioke.

Au bera adirazi zuan Zeruko Aingeru batek, Sales'tar Prantzisko eza-guna zan apaizarekin ibiltzen zanean, Erakusle Santu onek ala idatzi zuan: Ikustera etofi zitzaidan, Meza beria eman zuan gazte Jainkoi bat. Gazte au etxera abiatu zanean, atarian beste norbaiti aŭfetik joateko esaten bezela ikusi nuan.

Iñor ikusten ez nualako, deitu nion zer gertatzen zan jakiteko. Erantzun zidan ezinbestean: Urteak dira agirian nere aldamenen Aingeru zaitzalea ikusten detela. Orain arte nere eskutik eta nere aŭfean beti jartzen zan; baña apaiza naizen ezker ezker aldean jartzen da, eta nere atzean ibeltzen da. Orain gaude nor aŭfena aterako dan auzian eta ofera zergatik ate ondoan gelditu naizen.

Ala Aingeruak, Apaizaren aunditasun ezin esana alakoa ezagutu ta agertzen dute. Emen luŕfean aberatsen lekuan baleude, edozein apaizai lagundu, alaitu ta zaitzeko egingo luteke.

Arietamendi (Buruñ.)

EZKONTZEKO PRESTAERA

IX

Erlijio-gabebo Ezkontzak

§ II



ZKENEKO auekin ernai ibili; bere emazte umeen biotzetik erlijioa ateratzen saiatuz aien erlijioa jazaŕtu edo persegitzeko trebe dira ta. Onelakoren batek katolikoa izateaz poztutzen dan pamiliren batean sartu nai duan, erlijioaren kontrako bere usteak estaltzen ditu, bere erlijio-gabetasuna izkutatzen du, elizkoi itxura egiten du ta andretzat aŕtu nai duan andreari batzutan Meza entzutera lagun egiten dio; dana, nexka izutu ez dedin ta arekin ezkontzea irixteko. Baño, bein ezkondu ezker itxura ererez da, mozofoa botatzen du ta bere itz ta egintzakin biotz gaiztoa erakusten du. Olako maltzufeŕizko itxura egitea ezta asko zorionez izaten, baño ezta oso bakana ere; ta ofelakorik zuri ez gertatzeko ernai egoteko esaten dizut. Jaunak gorde zaitzala gizon gaizto ta Elizaren etsaiaren andre izatetik! Badakizu zergatik?

Gizon gaizto edo galdua
Jainko gabe, siñeskaitza,
Da beti senar gaiztua!
Gizon ona iñoiz ezta!

Bigarfenetakoa baldin bada mutila, au da otza baño ez Elizaren etsaia, lenago esan dizut zer egin beař dezun, benetan ezkontza aũfeko artu emanetan asi baño len. Pekatuzko oztasunetik ateratzen ezpada; bizitzako samintasunak gozatzeko ain beař diran elizako gauzetara ezpada izultzen; pamilia, ez erlijioaren gañean baizik erlijio-gabetasunaren gañean, jaso nai ba du; utzazu alde bat, auxe eskatzen baitu zure animaren onak. Ta ezpadezu egiten zer arixkuak zuretzako! Zenbat galbide zure siñismen edo fedearentzat!

Zenbat ez beař zure seementzat!


Lenbiziko taldeko gazteetan batzuek besteengandik berexi beař dira. Bere erlijio-gabetasuna biziera txara ta izen txarfekoa izan bada, gazte ego-gi ta garbi batek eztu senařtzat artuko, ezpada lenago eman zituan gaitz-bide edo eskandaluak, oitura txarfeetan bizi izan zana baño luzeago zintzo-zintzo biziaz ordaindu ta. Ta ala guziz ere, asko aldatua irudi ařen, geldi ibili beař da, auntzak beti lařera jotzen baitu ta, luzaro loikerian ibili dan gaztea lengo txarkerietara itzuliko dala bilduř izateko da, Jaungoikoaren laguntzak emazteaganako maitetasunak ta oni zoř dion leialtasunak ezpadiote gogorki eusten.

Bere utsegiteakin gaizbideak ezpazituan eman ta oietatik egiazki ta oso zuzendu bada, aztu ditezke ta ez itxi gizon ofi zorioneko bidea; Jaungoikoa-gana itzultitako gizon bat ta gaztetako utsetatik zuzendua, ezkonduaren egin bideak ondo bete ta senař ta guraso ona izan diteke. Ta nexka elizkoi guziak andretzat eskatzen dituzten mutilak ontasun ta elizkoitasun bideetara sar'u aziko balituzte, bestela ibili o lirake sendi edo pamilya kristau asko eta andreak, gero, zoriontsuagoak izango lireke ta zeruak bedeinkatutako ta Erlijioak babesten duan etxearen maitetasun santuzko eřegiñak izango lirake.

Ta gaurko asko da Joxepa maitea; gai au ugaria da, ta beste aldi baterako gordetzea on da.

Jainkoak aingeruen antzekoagoa ta kristau ohea egin zaitzala opa dizu zure Aita onek.

Ambrosio anaia



Eguzki anayaren eresia

(Gure Aita Prantzisko Santuaren)

Jaun on, orozgañeko, alguztiduna,
Zuri dagokizu gorapeña,
Andizuren (onor), ospe ta aitormena;
Zuri bakarik zaizkitzu zof
Ta zu izendatzeko gai ezta iñor.

Gora bizaitzate, Jauna, izaki guziak,
Batez-ere gure Anai Eguzkiak;
Onek dakargu eguna ta argia,
Edefa da ta guziz dirdiraria,
Ta zure Aunditasunaren agergaia.

Gora bizaitzate, Jauna, gure senide ilargi ta
[lzarak,]
Zuk egin dituzu ortzian (zeruan) argitsu edefak,
Gora bizaitza, Jauna aize anayak.
Egurats, odei, ozkarbi ta aro guziak;
Oyen bidez demayezu izaki guziai azkuria. (man-
[tenua])

Gora bizaitza, Jauna, ur afebak,
Deuskai, apal, ontsu ta txaua da bera,
Gora bizaitza, Jauna, su anayak,
Ofen bidez argitzen dezu gau iluna,
Ta eder, pozgari azkar ta indartsua da.

Gora bizaitza, Jauna, gure Ama lufak
Gu elikatzen (mantentzen) gaitu berak,
Sortaratzen ditu lore ta belafak.
Goratu ta onetsi ene Jauna, eskefak emayozka-
[tzue]
Ta apal-apalki gomendu (serbitu) ezazute.

Gora bizaitzate, Jauna, zure maitasunez bar-
[katzen dutenak,]
Neke ta gaitzak onez eramaten dituztenak:
Zoriontsu azkeneraño jasan ditzatenak,
Zuk sarizatuko dituzu, Jaun guziz gora.

Gora bizaitza, Jauna gure afeba Erioak,
Iñor ere kupitesten eztu ark:
Zorigaitz, oben lañiekin iltzen diranai!
Zoriontsu, zure nai deuna egiten dutenai!
Eztie kalterik egingo bigarren eriotzak.

Urtsuya





DAMU ONA



(ALMANDOZ TAŖ NORB. ereskidetua)

(DONOSTI'AR J. AND. ABAK bildua)


Ba - ra - tze - ren ba - ti - an o-

men da - bil gu - ra de - nok e - gon gai - te - zen Je-

su - sen es - ku - ra len Be - rak bo - ta-




ri - ak al - ge - ra mun - du - ra be - ka - tu e -



gi - ñaz be - ti be - ar du tris - tu - ra.

Ezta nekazaririk
Ez aundi-maundirik
Eskapatuko denik
Munduan bizirik.



Ezta aberatsa bezin
Lastimagafirik
Joan beaŕ bai-dute.
Ondasunak utzirik.

Eriotzako arixkuan. Iltzalea besarkatzen

Gertatua



TSASO baztafean, Guam ugarteko txoko politean, Agat izena duan eritxoa etzanik dago. Eri ontako biztanleak, siñismen berak biltzen ditu aspaldiko urtetan Karmen'go Andre Maria'ren eliz aundi xamaŕ batean. Ondoan bizi zan, lenengo asaben etxol antzeko batean, garai aietan Aita Kaputxino euskaldun agurgafia. Elur irudiko bizaŕak aŕ gixako biotza ta apostoluen antzeko gogoa ditu. Ogei ta bost urtetik gora ba-ditu eri artakoak zaitzen.

Itso nai duan bero astunaren ondotik, aratsaldea ba-zijoan geldi-geldi, ta eguzkia edertasun afgafizkoan, itsas-ur urdiñetan iragifera sartzen zan. Bere oitura zafa utzi gabe, gure Misiolaria irten zan bere eguneroko jira-txoa efi bañena ematera. Eskuñeko eskuan euritakoa ta ezkefekoaz bere efosario bikofak, otoitzaren ariora igaroz; bere buruan ez zeraman, urte askozko buruausteari eskefak, zilafa bezala zuriturik zeukan ile-eraztun dirdirtsua besterik. Aratsaldero oi zuan bezala, Samaria'faren ukendu tanta batzuek, naigabearen zigof latzak idikitako zaurietan ixurtzera zijoan; atsekabearen edari samiña edaten zutenen biotzetarako, gure Misiolariaren itzak zeruko intza ezin gozoagoa bai ziran.

Baño aratsalde ura, ez zan afeko asko bezin paketsua izango. Kaputxino agurgafia gaxoen etxeak ikusiz ba-zijoan. Aietako batetik ateratzean, topo egin zuan, txori panpatakoaz izutuak bezala, zoraturik igesi zijoazen emakume ta afe sail batekin. ¡Ai Aita!, esan zioten, Manuel'ek bere andrea il du:

Si Manuel hapuno i asaguaña eta gizajuak laxter egiten zuten, Manuel afe bere asafe goñan, berak ere galduko zituan bildufez. Laban odoldua eskuan zuala bere txabolako atarira aterarik bai-zegoan. Misiolariak ezagutzen zuan ondo Manuel, eta biotza naigabeaz erdibiturik, bereala joan zan okefa gertatu zan tokira.

Guziak Aita zijoan alderdetik igesi zijoazen, bildufez esanez, ez gero iltzaleagana urbiltzeko, ilabete bakaf batzuek zituen afa besoa eta beste eskuan labana zuala, kalera begira zegoala edozein txarkeri egiteko prest. Aita, ala ere auferatu zan, bere ondo-naia eragiñik. Ilaren onagatik gaizkile bat zeukala afean atzenda balitz bezala, begitarte argi ta itz maite-tsuak ezpañetan, ezer ez ba-lu ikasi bezala, sartu zan Manuel'en txabolan. Misiolari agurgafiaren etofera bildurgabea ikusirik, leku egin zion atarian baztartuz. Antxe agiri zan luze-luze lufean il-befia. Lepoa eman zion labankada izugafiak luf jo-erazia zegoan. Aitak, bere buruaz begiratzeko ezertxo egin gabe, andre gaxoari azkenekoak eman zizkion, Manuel zori-txafekoa afiturik berari begira zegoan artean. Aitak biotz afe taupada bat bedere nai zukean oartu, baño ez zuan txikienik ere sumatu. Illek zegoan.



Itzuli zan orduan iltzaleagana ta gozo-gozoro esan zion: Manuel, zer egin duzu?...eta iltzaleari bere eskutik labana bereala kenduz, bota zuan kalera, al zuan ufutiena.

Iltzaleak, labanik gabe arkitzean aitortu zuan befe obena, bere andre zenaren biziera ez onegiaz izan zala esanez: susmo gaiztoak jafi zion eskuan labana. Besarkan eldu zion orduan Aitak eta maitasun biziaz damutzera eragin zion, Jaungoikoaren eta gizonen afean egin zuan gaiztakeriaren aunditasuna adiraziz. Onela iritxi zuan biotz ufikafi ura biguintzea. Bereala, Aitaren itz erdi batera, berak bere burua salatu zuan efiko zuzendarien afean. Eta efi-mutila etortzean esan zion Aitak: «jafaio, Manuel ofi ta egizu esango dizuna» ta berealaxe jafaio edo segitu zion....


Orduntxe entzun zan ilun ezkiñaren ots ozan, gozo ta garbia ta belaunikaturik Aita ta bere ondokoak, otoitz egin zuten *Angelus* esanez eta afe ondotik ilaren animaren onetan otoitza egiñez. Otoitza bukatzean urbildu ziran gertatu zana ikusi zuten guziak, eta aspalditan Guam'en oitura dan be-

zala, beste oker aundiagoen batetik atera zituanaren esku ongileari, muñ egin edo musu eman zioten.

Egin zuanaz azturik, eñsarioaren pikoak bidenabar igaroaz, euritakoa eskuan, Misiolaria bere txokora itzultzerako, eguzkia izkutatu zan itsasoan;



Agaña, Guam'go uri-burua. Emen bizi da Aita Santuaren Ordezko Agurgafia. 8.000 gizaki ditu.



baztaf guztiak iluntasunaren soñekoan bildurik izkutatzera zijoazen eta izař dirdirtsu-garbi, eraztun argitsuduna Sartaldeko zeru zuri-gorřan txintxilika agertzen zan..... «Ave Maria gatia plena, Dominus Tecum.....» zion Misiolariak..., bere etxolazko zurubia edo eskalara gora zango nagia jasoz....

Misiolari gazte batek

AUSTRIAKO AZKENENGO

EREGEAREN ERIOTZA EDERA



BI ilabete bakarik egin ditu, Austria'k izan dun azkenengo eregea il ezkeru ta bereala izpafingien bitartez bere eriotzaren beñiak alde guzietara zabaldu dira. ¡Ain afigafia izan da erege ta kristau bikaiñ oñen eriotza!

Gure euskeldun irakurleak pozik irakuriko dituztelakoan, emen jartzen ditugu «La Croix»tik artutako beñiak. Ara zer dion.

Epailaren 24'g. egunean agertu zitzaion lenengo aldiz sukafa. Efegearen gaitza ikusi orduko, bere gela txikitik atera ta gela aundiago ta argitsuagora eraman zuten, aize, argi ta eguzki geiagorekin gaitzak iges egingo zuelakoan, bañan alpeñik; lañoak jetxi ziran ta eguzkiaren izpiak etzuten indař naikoa izan, laño aiek ufatzeko, Karlos efegeak gela ortan igaro zituen azkeneko iru urte luzetan.

Ostirala zan sukafa lenengo aldiz agertu zitzaionian. Astelenean 27'an gaitza aufera zijoala ikusirik, obenak aitortu ta Jauna artu zuen, efeñia ta seme zařena aũean zirala.

Ezaguera osoa zeukan Karlos'ek, baña ez ala indařak, sukafa bere lanean aufera zijoan ta. Egun ortatik etzan ondolik Zita bere emaztea alendu. Bere inguruan zeudenak etzuten itxaropena galdu, astearteko egun guzia lotan ikusi zutenian.


Ařatsian esnatzen zan aldi bakoitzean, sukafak burutik jota esaten zien ingurukoai: «Ez al da zorion aundia olako uste edeřa izatia Jesus'en Biotzean? Nola eraman liteke bestela au dena? Nere alegiñak ortarako izan dira beti, gauz guztietan Jaunaren borondatia bilatu ta al nuen obekienik egiteko.» Bestetan bere efiko ta bere semien beñiak eskatzen zituen.

Jofailaren lenbiziko egunian efegea gaizkiago jafi zan ta sendagileak itxaropen guzia galdu zuten. Egun ortan bertan goizetik Jauna artu zuen ta gero bere oatze ondoan aldare batian jafi zuten. Andik pixka batera arnasa gero ta lařigoarekin ola zion: «Zenbat maite dituan nere aũak!» Ta efeñari: «Zuekin gure efira itzuli nai nuke.»

Esaten zitzaion guzia aditzen zuen, baño askotan berak itzegin etzezean ta asmatu egin beař zitzaion esan nai zuena. Aditzen ziotenian, bere poza agertzen zuen, baña bestela burua mugitzen zuen bere naigabea erakutsiz.

Batzutan erdi eserita, bestetan etzanda euki bea' izaten zuten. Azkenian efegiñari esan zion: «Zure besoetan eutsi bearko didazu». Eseri zan ba oatze ertzean efegiña ta bere besoetan euki zuen il arte Karlos'en gorputza.

Biyen artian oso ixilik itzegin a'fen, batzutan itz oiek aditu zizkioten efegeari: «Aundiak oso aundiak dira nere nekeak, baña guziak eraman nai ditut, nere efiak batu ditezen». Gero «¡Jauna! ¡Nere a'fak! Gorde itzazu be-



(Foto. Manterola)

EUSKO - BASETXIA

re gorputz eta animak, oben lañiaz baldin samindu bea' bazaituzte, bialdu zaiezu, Jauna, lenago eriotza.... Jesus, zuretzat bizi naiz.... Jauna egin bedi zure borondatea.... Jesus atoz....

Amaikak aldian ezagutu zuen eriotza bertan zala. Bere seme guzien izenak banaka esanaz, bere emaztearekin batean Jaunaren eskuetan jafi zituen. Jauna artu nai ote zuen galdetu ziotenian; «Gogo aundiak ditut» erantzun zuen. Eriotza etofi arte, efegeari esan zituen efegiñak esaten zizkion otoitz guziak.

Ara abots argiaz esan zituen azkeneko itzak: «Jauna, egin bedi zure borondatea. Amen». Bere burua ekegiñaren gañera erori zan; geroxeago, ¡Jesus! esanaz, azken arnasa eman zuen. Amabiak ta 23 minutu ziran bere anima edefak, itz ori esan ondorean, gorputzetik iges egin zuanean.

Azurzi O. M. Cap.

Garai berean ordu bera? Ez orixe

Garai berean

Garai berean zer ordu dan luferko alderdi bakoitze-tan ikusi dezakezuke emen.

Gaueko amarak.—Filipiñetan, Australia'n, Karolinetan, Japon'en, Siberia'n eta Guam'en.

Goizeko amarak.—Groelandia'ko erdian eta Brasil'go Sortaldean.

Gaueko amaikak.—Australia ta Siberia'ko Sortaldean.

Goizeko amaikak.—Islandia ta Groelandia'ko Sortaldean.

Gaueko amaikak.—Zelanda Berian eta Kaledonia Berian.

Eguerdiko amaikak.—Inglatera'n, España'n, Portugal'en, Prantzia'ko Sortaldean eta Maruekos'en.

Goizeko ordubata.—Siberia'ko Sortaldeko mutuean eta Ozeania'ko ugar-te txikietan.

Aratsaldeko ordubata.—Frantzia'n, Noruega'n Belgika'n Paisas Bajos'etan, Suiza'n, Italia'n eta Alemania'ko Sortaldean.

Goizeko biorduak.—Alaska'ko Sartaldean.

Aratsaldeko biorduak.—Alemania'n, Noruega'n, Balkan Alderdietan, Grezia'n eta Afrika erdikoan ipafaldetik egoaldera.

Goizeko irurak.—Alaska'ko Sortaldean eta Kanada'ko Sartaldean.

Aratsaldeko irurak.—Afrika'ko gañerakoan, Turkia'n, Asia Txikian, Rusia erdian eta Arabia'n.

Aratsaldeko lauak.—Erusia'ko Ipañ-Sartalde ta Ego-Sortaldean, Arabia ta Persia'n.

Goizeko lauak.—Mejiko'ko ta Kanada'ko Sartaldean.

Aratsaldeko bostak.—Indietako Ipañ-Sartaldean, Asia-erdi-Efusikoan, Siberia-erdikoan eta Afganistan'en.

Goizeko bostak.—Kanada, (Mejiko'ko Sartaldean) eta Latefi batuetako erdian.

Aratsaldeko seiak.—Siberia'n, Indietan eta Txina'ko Sartaldean.

Goizeko seiak.—Kanada'n (Mejiko'ko erdialdean) eta Latefi Batuetan.

Aratsaldeko zazpiak.—Siam'en, Sumatra'n, Siberia-erdian ta Txina-erdian.

Goizeko zazpiak.—Latefi Batuetako Sartaldean, Kanada-erdian, Peru'ko Sartaldean eta Ekuador eta Kolonia'kotan.

Aratsaldeko zortziak.—Australia'ko Sartaldean, Siberia'ko ta Txina'ko Sartaldean.

Goizeko zortziak.—Brasil'go Sartaldean, Benezuela'n, Kanada'ko Sortalde, Arjentina'n, Txilen, eta Bolibia'n.

Aratsaldeko bederatziak.—Siberia'ko erdialdean, Austrialia'n eta Txina'n.

Goizeko bederatzak.—Guayanas'en, Groelandia'ko Sartaldean, Brasil-erdian eta Uruguai'en.

Ordu auen ariora, gauez ta egunez aldatuz dijoaz orduak lufeko baztar auetan; eta aldeketu bukaera gabe oni eskefak, lufean ordu guzietan otoitza egiten du Elizak eta Mezak ba-dira beti non edo an.



Protestanteak Euskaleñian

Iruña'ko albistari batek, Diario de Navaña'k auxe dio gutxi gora bera:

Zenbait jaunak azkeneko egun auetan kofeoz artu dituzte erlijio protestantea zabaltzeko egindako liburutxo ta ofi askatu batzuk; dakarzkiten afa-zoien indaf aulak ta idazkera zakafak egileai ez die izen aundirik emango ta oien afiskua gutxitzen du: ala ere, gure irakufleak jakiñen gañean jartzea on dala uste degu, olakorik artzen badute autsi egin ditzaten. Agiri danez, protestanteak ez dituzte uzten beren erakutsiak zabaltzeko asmoak.

Bada denbora puska bat, lan au egin nai izan zuten etxeetako mañadi edo eskaleratan beren idazkiak, (eskrituak) utziaz; orain kofeoz bialtzen dituzte; orain len egin genduan bezela ernai egoteko esaten dizutegu.

Idazki oiek Estados Unidos'etako Kalifornia'ko irarkola edo inprenta baten izena ipiñirik daukate.

Ameriketako protestanteak gure eñian beren erakutsi okefak zabaltzeko lan egiten dute, Beren erakutsiak zabaltzeko liburuak ta ofiak zabaltzen dituzte.

Nonbait irakurgaien indafa ondo ezagutzen dute.

Beraz katoliko euskaldunak ez dezakegu oztzik ikusi gure siñismenaren etsaien lan ori.

Beafezkoa da euskerazko irakufgai onen bidez gure anaien siñismena indartzeko lan egitea.

Beahezkoa da euskerazko irakurgai onak zabaltzeko guztiok al deguna egitea.

Ameriketako protestanteak bere gezuhezko erakutsien alde Euskalefian lan egiten dute ta guk, euskaldun katolikoak, eztegu gure Erian gure egiazko sinismen edo fedearen alde lan egingo?

Arbelaitz O. M. Cap.

Lege legora Ameriketan

Estados Unidos'etan alkool dun edariak debekatzen dituan legeari lege legora deitzen diote.

Orain lege onen bigafen urtebetetzea dala ta ontaz asko idatzi dute eri aietako paperak lege ofen ondorenak adierazteko.

Zenbatza edo estadistikak argitaratu dira; emen ipintzen deguna gobernuaren zenbatza edo estadistika'tik artua dago.

Alkool'dun edarien edaleak *20 miloetik bi miloteridira* jetxi dira; ta edarietan xautu edo gastatzen zana urte batean *bi mila miloi* gutxitu da. Lenagoko edaleetatik *eundik amabostek* bakañik edaten dute, auek edaten dutena lenago edaten zanaren *eundik bost* besterik ezta Gobernuak lege au beteazteko *sei miloi* terdi *dolar* baño gutxigo bea du; ixun edo multak *berogei ta amazpi miloi terdi* dolar izan dira, oietatik iru miloi gobernuaren kutxetan sartu dira; mugausle edo kontrabandistai ardo ta beste edaritan *lau miloi* baño litro geiago ařapatu di kiote.

Ordikeriagatik lenago sartzen ziran *eunentzat* orain berogei sartu dira. Euskaldunen artean olako garbiketa elitzeke gaizki etofiko.

Agure baten esan onak

Agure batek, bein bere inguruan zeukan mutiko salari bost gauza auek esan zizkion:

- 1.º Jai eguneko lanak iñor eztuala aberastu.
- 2.º Bidegabekeriz nork bereganatutako ondasunak iñor ez dutela zoriondu.
- 3.º Ukar edo limosnak iñor ezduala beartsu egin.
- 4.º Goiz-ařatsean otoitz egiteak lanik ez duala atzeratu.
- 5.º Seme biufi ta oitura txafekea iñoiz ere ez dala zorionekoa izan.

Txinpartak Liburu edeř olerkidun edo bertsoduna Sagartzazu'tař Kaldi (**Satarkak**) egiña.

Euskaleřiko Liburutegi on guztietan dago salgai.

Lore usaidun-mamitsuak Euskerazko liburuetan atsegiñ eta edeřeneta-koa. Kondaira edo istori ikasgařiduna.

Elizondo'ař Prantzisko Aita Kaputxinoak egiña.